

OLERKARI



KONTUETAN

OLERKIAREN APAINA

Aurreko lanean esan geniduan bezela, geuk barruan datoa gurea besteak be artzen emotea, besteak be, irakurleak naiz entzuleak, parte artzea; aize dozu idazlearen aimesik gurea, olerkariarena batez be. Jabetu ditezala enparauak be, geuk dakiguna ta sentitzen doguna dedilla besuntzai be atsegingarri.

Etz bi ditu esku naiz parte artze onek: batak, argitsu, pentsamentera geroz; idazleak, lana osatzean, bere kantuan euki, sentidu ta jasok itxi daukuna, gu be aze, irakurritz edo entzunez, jaso, ausnartu ta mugitzen alegindu gaitzala, au da, egillearen pentsamentu, gogoi ta auzeraz jabetzen saiatu. Besteak, barriz, olerkariak pentsatu ez, baina barruan bizi ta sentidu ebana emon nai dauku, berak bizi ta sentidua be sentidu ta bizi daigun. Aize dozu egillearen lanaren osineraiño iri ta arek pentsatu, sentidu ta bizi izanaz jabetu ta bizi izatea.

Batak, bidez donari lez, guk eskuz oraturik lagunduta, bers idia idaztezik zeat, aurrera egitea opa dau. Besteak, etxean gagozala be badi, berak, olerkariak olerki-lanean inarduala izandako barne-zauzkada, bidez-erago ta dardadak, giza-gogoak diruan unetako egoera estu, larri naiz pozkerez jabetu ta arekin bat eder-sensan bidez jokatzea, gura dauzu.

Itzak euren izatea dabe, ta itz-matzo baketzak alderdi bi ditu, guk geute zentzunez —naiz kanponikoz naiz barrutikoz— artzen ditugunak; entzungarri da bata, au da, doitu; olerkor da bestea, au da,

itzaren esan-naia. Itz eta doiñu-ore denez, izkuntzak badau berez doiñutasun berezi mugatua, onako barne-igiera —ritmua— ta itzen mintzorra, azentua. Guztiz ezkeru ta misteriz inguratua dozu, baiña ortze agertu oi da itzen berezitasuna, silaba ta esaldiena nunbait; izkuntza bakotxak berea dau, ta izkuntzalariak gora aundia emoten dautsoe gaur. Gai ulerkor, esan-naidun denez, joskeraren zerbait da izatez mugatua, zerbaiti dagokiona.

Izkuntzan, esan eta entzun, itz dagianaren gogoia, naiz uneko naiz iraunkor dala, zelakoa dan eta nai dauan doiñuaren, ritmuaren eta azentuaren bitartez ezagutu daroagu. Itzen egitura ta alkar lotzeak, ostera, itz, esaldi ta esakunok barruan zer daroen, zer gauza estaltzen daben, adierazten dauskue.

Doiñua

Olerkian daukaguzan gaiak buruz asko idatzi izan da gizaldiak zear. Platon'ek berak, Elade zarrean, bene-benetako garrantzia emon eutsen. Ez zituan banandu gura iru gai edo zatiok: *doiñua* (melodi), *igiera* (ritmua) ta *izkia* (letrea). Ondorengoak be bide ortatik jo eben geien bat.

Doiñuak zati bi ditu: izatezko esan-naia lenengo, ta joera argitsu, sarkor, eragiña, bigarren. Gure arimearen egoerak, jarrerak, bizi-naiak antz-emon eta adierazten dauskuz, bere bestelako griña, kezka, zauz-kada, antzia ta egintzakaz batera. Bere gorabera apartak ditu arima-bizitzak, musikaz naiz poesi baten doiñuz adierazo nai geunkezanak.

Guiztiok ortaz zentzun berezi bat daroagu barnean geure arimearen aruntz-onuntz, ausi-oso ta zabuak, irrati-artzaillez soiñuak lez, geuganatzeko. Doiñu-zentzuna jaiotzatik yaku eder, geure izatearren zerbait da-ta. Igiera ta mogimentua be gaztetatik yakuz atsegingarri. Zergaitik ete? Zenbaki edo numero baten oiñarrituta dagozalako. Orrek, ostera, argi ta egokia dalako, zauzkda leuna sortu oi dau guregan. Eder yakuz izaera ta sena azaltzen dauskuezan doiñuak. Doiñu biren neurkeran egokitasuna daukagu, ta neurritz nastaua nastau bakoa baiño atsegiñago izan oi yaku.

Euskeraz, bertsoan diñot, ainbat doiñu ezbardin ezagutzen doguz. Ba-ditugu, euskal metrikian, eredu lez, «zortziko aundia», puntuetan amar ta zortzi silaba daukazana, eta «zortziko txikia», lenenyo erreskadak zazpi ta bigarrenak sei daukazana, «Gernika'ko Arbola», esaterako. «Puntu luzeak» eta «puntu laburrak» be esaten yake onei. Beste batzuk ba-dira orren ezagun ez doguzanak. Naiago dogu, alan be, doiñu ezaguna, ez-ezaguna baiño. Zergaitik au? Doiñu naiz melodi baten

askoz errezago artzen dogulako gaiaren urrun-xedea; gaia ezagun danean, ba-dakigu norantz doan egillea, obeto dazagu zeri antz-emon naiez dabilkigun, atsegin yaku jarten dautson jantzia eta, azkenik, ezeren indar bage geuretzen dogu kantua.

Ritmua

Onetzaz be asko idatzi da. Ritmu itza lateratik artua dozu, ta latin-darrak gerkeratik —*rhythmos*, *rhein* aditzetik, jario, ixuri— artu eben. Idaz-lanetan silabaen jarraiko ixuri doiñutsua esan nai dau, musikako notetan oi denez, edo-ta, mogimentua tarte ta uneka, neurri ta taiuz, bir-artua. Orrela dozu biotzarena be. Itz, abots, esaldi, eten, geldialdi, naste ta jarrai gozo, atsegin, ereskitsua, bai itz askatueta, bai bertsoetan.

Ibilliaren egokitasunari deritxogu batez be ritmua. Ibilli gabiltz, ez edozelan, egoki baiño; orren zerbait dogu ritmua. Sail askotan ezagutzen da: dantzan, musikan, itz-jarioan... Itz-jarioa daukagu poesian, itz-jario, ixuri egokia; itzezko ixuri egoki orri, taiuzko orri deritxogu ritmua poesian.

Musikan, jakina, egoki ta eraz jarriak egon bear dabe doiñuak; bardin olerki lanean be. Antxiñakoen artean gora aundia emon oi yakon musikarako zan bertso-letrearen doiñutasunari; nota labur eta luzeak ba-eben zer ikusia. Neurkera sustrai ziran «oin» eritxenak: trokeu luze ta yanbo labur, iru aldi ebezan; daktilo labur bi ta anapestu luze batek, lau aldi, ta antimakro —luze bat, labur bat eta luze bat— bost aldikoa zan. Euskal musikan ez ete dago zerbait, igierari begira, itz-ritmuan eta eresi-ritmuan? Euskal poesia beintzat, gozatsu dozu, ta erreza kantuz jarduteko.

Euskal metrikari dagokionez, ez dira bardin ritmua ta neurtu ta zenbatu daikegun bertsoaren amaia. Sarri samar nastau oi diran arren, ez dira gauza bat bera. Neurkera askotako bertsoak daukaguz; neurri ezbarðiñeko olerkiok amai bardiña euki leikie. Ritmua, ostera, barruko eten-naizko aria ta dardara ez dira bardiñak, kasu bakotxean ezbarðiñak baiño; neurria azalekoa dozu, ritmua barrukoa. Au be esan gengike: neurria lege soilla dala, ta ritmua dardara, olerkiari bizitasuna damotsona. Neurria betikoa da, ritmua orain eta emengoa, irakurten diardudan olerkariarena; neurria aldatu leiteken eina, ritmua ez aldatu, ez neurtu ezin gengiken barne-kemena.

Diñoguna obeto azaltzeko, ekar daidazan erakusbide batzuk. Ona iru olerki-puska andik eta emendik ezarian lez artuak.
 J. Zaitegi'rena dozu lenengoa. «Tori nire edontzia!» deritzenetik jasoa. 1934'go garagarrillaren 10'an Zarautz'en ospatu zan Vgarren Eusko-Olerki-Egunean, lenengo satia irabazi ebana da. Olerki-Egunari egiñiko opari bat dozu. Artzain ontzi bat landu dau olerkariak, munitu gainean jezarrita; ontzi bikaiña, abenda-odolez igurtzi ta aren gogorretan otsez eta atnasa beroz lurrundua. Gai-billa joan eta espela ebagi dau basoan. Ardiak dakus mendian, artzaina txistuka erpin-goiak zeuz. Kai kua istar artean, ardiak batzen ditu: «Erroberoa ba-dator txirriean...» Gero, bertsolari danez, bere zorion bizitza diragar kantari: mendiak itxasoa, ibar eta zelaiak, zugatz eta txoriak... Udabarriz amaitu dau lana, ta egiñari begira pozetan daukazu olerkaria. 17'garren aspaldian onela diño:

«Barnean asmoak irakin dagio:
 gaineratatu nitun oroipen goxoak,
 ipui zarren ezti eta gogo-ikarak...
 ardo zarren zillar-aparra dario».

Lauaxeta'k, Laukiniz'ko olerkari yaukalak, poesi-liburu bi lagi eskuzan: «Bide barriak» eta «Arrats-beran». Bigarren onetan koplak gure ariñak ditu. Irakur «Etxeko alaba» deritxanetik zati au:

«Arrats-autsak daukaz bideak!
 Lau zaldun datorz España'tik,
 Mairu-erriko mairu baltzak
 zidar eta urrez zamaturik.

Lau zaldi zuri, ugel gorri,
 zidarrezko aukoz bitsetan.
 Arin-arin, aizea iduri,
 eguak daukez zangoetan.

Zidar eta urrez zamaturik
 lau zaldun datorz España'tik».

B. Gandiaga'k Mendata'ko poeta erneak, igaz irugarren olerki-liburua atera eban: «Uda batez Madrilen». Bertotik artua da irugarren eredu. Aldia emon, Manzanares ibai gainean datzan Segobia'ko zubian daukazu olerkaria. Ibar zabala dau begipe; joan-etorri bizi inguruan baiña zubiak berean dirau, baita olerkariak be. Onela diño:

«Trafikua gorabehera,
 ikara gabe begiak;
 iskamila gorabehera,
 urera begira dirau
 begi zabalez rubiak».

Laukoak dira len-ereduaren estrofak; lenengo bertsoak eta lau-
 garrenak amai bardiña dabe, baita bigarrenak eta irugarrenak be euren
 erren. Usik egiteke darabil neurkera, ez dauko betegarririk. Sei ta
 seiok, 6/6, dira bertsoak, erdian etena dabela. Bizkaia'n ba-genduzan
 leku neurri ortako koplak zarrak; mugaz andik Zaldubi'k bereziki olan
 osoa zituari aihbat; eta Zaitegi'k, «Tori nire edontzia»-n ez-erik, bere
 onen olerki liburu «Berriz ere goldaketan» ba-daukaz olakoak.

Neurkera ariña, dirudienez. Orixe'k, beñola, onan idatzi eban neur-
 lera ontar: «Amabinako auk oso ariñak dirudite, baiño auk ere egiz
 edo iduritur lau indar-mintzara edo azentu indardun ditute bertso ba-
 loitzean, irugarren silaba'kal banatuak. Edo azentu indardunik ematen
 ez ba'naie ere, dutelazko iduritur kentzea ez da erraz». Gizonari ez ei
 yako eder jarraiko soñu luzea entzutea, ta ortatik bera konturatu bage,
 zentzu egin oi ditu itzak eta soñuak. Zaldiaren laugaiña gogoratzen dau
 Orixe'k, eta M. Lekuona'k onetzaz: «Zaldiaren perra-otsa entzuten dua-
 nean, naiz-ta perra-ots ori beti berdiña izan (trakatantrakatan), gizo-
 nak, entzun utsez, soñu berdin ura, bere baitan, bi puska egiten du
 (trakatan-trakatan), eta ortaz gañera puska bakoitzari bere doñua eman,
 goatzuagokoa-beratzuagokoa (TRAKATAN-trakatan)... Ritmoaren zen-
 tzu ederrak (Eder-Zentzuak) eragiten digu ori. Segitu-segituko soñuak,
 bi zati egiten ditugu, bi «oin». Gizonaren barru-legea da».

Ikusi Zaitegi'ren lan onetan ritmua zelan dabillen lau bertsuotan;
 baita doinuaren edertasun betea be: arrigarrero borobiltzen alkar sila-
 bak eta doñuak. Bardin B. Gandiaga'renak be: nare ta gozo, zugarri
 zeuz doan ibaiaren ibilia dirudi, eme ta ezti, gentza joritan; baita begi
 aurrean daukon Manzanares'en joana baizen astitsua be. Lauaxeta'rena,
 ostera, bizi-bizia dozu, bare-oldar eta kemenez gorantza dabilllena; lau
 zaldi zuriak lez, bultzaka, bizkor, kezkatu ta bizi-naiez gainezka, «arin-
 arin, aizea iduri» dabiltz olerkariaren bertso biurriak, idazkortz-erpiñe-
 tik igesi gurata.

Naiko bestelakoa da, labur esanda, iru olerkari on lanetan dardar
 dagian igiera, ritmua; onenak gorantz ba'dagi, arenak berantz artzen
 dautzu. Baiña, naiz gorantzakoa naiz berantzakoa izan, teink doana naiz
 nasai, jario betekoa naiz urriagokoa, orrean ritmua noznai dozu atsegi-
 ñezko. Zer dala-ta ori? Itzak eta igierak alkarrekin daben barru-egitura
 auzagarriagaitik, zalantza bage.

Itzak geinez —leun, gozo, zidatzeke— girotu oi dabe olerkia, ta itzen gain dardaraka igieraten eguz doñua agertzen. Abonki garai, ag gitsuak sortzen dabten melodiak inguru ta gito sorgin, azkar, gardenak dakar, eta olerkariaren lana ixil-joko edertez osatu ta bitxiu danta onek; beste batzuetan, biotz-samifia naiz atsekabea atagitzen dira ia beti soñu astun illunen jantzi azpian.

Gotago esana barriz autortuz, ona zergaitik eta zelan dozun bihurtu ezifia olerkizko itz-errekada, edo-ta mataza bat. Soñu bakozak, eta bardin barru zuzkada kulunka bakozak, musika denez, ritmuaren eta melodiaren betarkada artean dardar dagian osotatun oso orretan, uru-rik lez doa, ezin-zatituzko «barru» bat, mamín bat, gogozko gito bat. Eta, ondorenez, azaleko itxura zerbait aldatzeak, zatirik pitxitena dala be, barru mamifia be aldatzera geroaz, Alan dirudi beintzat.

AITA ONAINDIA

Irakurri zazute... "KARMEL"

Irakurri-azi zazute "KARMEL"

"Gure aldizkaria"

"Zure errebista"

"K A R M E L"

Urteko eskupekoa 40 duro.

Zuzenbidea: Karmen, 2 - EIBAR - Gipuzkoa

LIBURU BERRIAK

I.—**Matxitxako Lur-buruko Itxas-gudua. El Combate de Cabo Matxitxako (1937-3-5).** «Geu» argitaldaria, Bilbao, 1977. Euskeraz ta euzkeraz; 112 orrialde. «Bidasoa Ingurraztiak», 2'garrena. Alkarte onek ba-du bere elburua; onela dio: «BIDASOA»-k, Euskal Errian gaurko edestiaz zer ikusia duten eta bearrezko ditugun ikaste, billa-leta ta garbibide diran lanak batu ta elkartu nai ditu».

Lanengo ingurraztia, orain bi urte, argitaratu zuan Euzkadi'ko gu-deri buruz ainbat argazki ta agiri, edesti ta abarrez betea, baita antipen aldetik ere gauza interesgarriz ornitua. Bigarren ingurrazti (kuadernu) onek, «an gerraldian, 1937-3-5'an, «Matxitxako-Mutur» ariztan guda-ontziak Kantauri itxasoan izan zuen burrukaldiaren in-geruan osoturiko iker-lan bat agertzen» digu. Berrogei urteko ixillal-ian gauza gelegi suntsitu yakuz betiko; beraz, euskaldun zintzoen egipen jatorrok, dokumentu bikalñiez aitortuta obe, bildu ta gaurko emari erakutsi bearra daukagu. Euskaldunak ez dira egundo ere meko izan, euren ondasun, lur ta itxasoak zaintzean batez ere. Aurre-likak egifia guk zergaitik ez?

II.—**Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la Poesía vasca.** J. M. Leizaola egille. «Ekin» euskal argitaldaria, Buenos Aires, 1974. 170 orrialde. Bostgarren saila du egilleak euskal olerki sai-lean, lendik ere bereak ditu ba liburu auek: «Literatura vasca» (Bar-celona, 1923), Espasa'n, XXIII'garren alean, España artikuluan da-zenena; «A propósito de la poesía popular» (Yakintza, 1936), «Es-udios sobre la poesía vasca» (Buenos Aires, 1951); «Etudes sur la poésie basque» (Baiona, 1951); «La «Crónica» en la poesía popular vasca» (Buenos Aires, 1961); «Romances vascos y Literatura pre-istorica» (Buenos Aires, 1969); «8103-1814 en la poesía popular vasca y otros estudios» (Buenos Aires, 1965); «Gure Olerkariak» (Euzko-Gogoa, 1956).

Azkenengo eskeifñi digun liburu jakingarriak iru zati dauzka: I. Bi olerkari errikoi: Zapirain gipuzkoarra ta Jel-Orde bizkaitarra. II. Bi